

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AZKOITIKO UDALA**

*Iragarkia*

Jendaurreko informaziorako legezko epea igaro ondoren eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, udal zuzenbide publikoko zerga eta bestelako diru-sarrerak kudeatu eta biltzeko ordenantza orokorra behin betikoz onartu da, ondoko testuaren arabera:

*Ordenantza orokorra, udal zuzenbide publikoko zerga eta bestelako diru-sarrerak kudeatu eta biltzeko.*

**ZIOEN AZALPENA**

Ordenantza honek, Udalaren diru-bilketaren gaineko erregulazioa osatzeaz gain, zergadunari diru-bilketako prozeduran segurtasuna emateaz arduratzen da.

Ordenantzan arautzen diren gaiek eginkizun hauek betetzen dituzte:

- Udalak zehaztu beharreko zenbait puntu zehaztea.
- Herritarrei udal diru-bilketaren prozeduraren berri ematea.
- Erakundearen beste tresna arau-emaile batzuk sinplifikatzea eta osatzea, hala nola ordenantza fiskalak, haien alderdi komunak bilduz eta horrela behin eta berriz kontzeptuen errepikapena saihestuz.

Ordenantza, urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen behar, eraginkortasun, proportzionalitate, segurtasun juridiko eta gardentasun printzipioetara egokitzen da.

Ordenantza honen beharrezkotasuna beraz, Azkoitiko Udaleko zerga eta bestelako diru-sarreraren Kudeaketa eta bilketaren prozedura arauak zehaztean datza, ahalik eta eraginkortasun handien duen eta errealitatera egokitzen den prozedura arin bat ezarri. Araua bat dator proportzionaltasun printzipioarekin, funtzionamendu egokirako beharrezko erregulazioa dakarrelako.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araudia arau-esparru egonkor eta koherente batean sartzen da, eta horren edukia bat dator 38/2006 Foru Dekretuak, abuztuaren 2koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua onartzen duenak gai horri buruz ezarritako erregulazioarekin.

Horregatik guztiagatik, Ordenantza honen legezko oinarria Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta 2/2004 Legegintza Errege Dekretua, Toki-Ogasunak arautzen dituenak dira.

Era berean, arauan jasotako erregulazioak eraginkortasun printzipioa gauzatzen laguntzen du, prozedura eraginkorragoa bihurtuz; izan ere, aurreko ordenantza ez dator bat gaur egungo errealitatearekin eta honen eguneratzea eta sinplifikatzea ezinbestekoa da.

**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

*Anuncio*

Habiendo finalizado el plazo de información pública de la ordenanza general de gestión y recaudación de los tributos y otros ingresos de derecho público locales, se considera aprobado definitivamente según el siguiente texto:

*Ordenanza general de gestión y recaudación de los tributos y otros ingresos de derecho público locales.*

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Esta ordenanza pretende no sólo completar la regulación en materia recaudatoria del Ayuntamiento, sino también proporcionar al contribuyente una seguridad en el procedimiento recaudatorio.

Las materias reguladas en la ordenanza cumplen estas funciones:

- Determinar aspectos que necesitan de concreción por parte del Ayuntamiento.
- Informar a los ciudadanos del procedimiento de Recaudación Municipal.
- Simplificar y completar otros instrumentos normativos de la entidad, tales como Ordenanzas Fiscales, en tanto esta Ordenanza General contiene aspectos comunes a lo mismo, evitando así su reiteración.

La norma se adecua a los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia exigidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Así, la Ordenanza es necesaria pues permite establecer los cauces procedimentales a través de los cuales ha de efectuarse la gestión y recaudación de los tributos y otros ingresos de derecho público local en el Ayuntamiento de Azkoitia, y la eficacia queda garantizada a través del establecimiento de un procedimiento ágil que se ajusta a la realidad. La norma es acorde con el principio de proporcionalidad, al contener la regulación imprescindible para su correcto funcionamiento.

Para garantizar el principio de seguridad jurídica, el Reglamento se integra en un marco normativo estable y coherente, resultando su contenido acorde con la regulación sobre la materia del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, la presente Ordenanza tiene su fundamento legal en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

Igualmente, la regulación contenida en la norma contribuye a hacer efectivo el principio de eficiencia realizando un uso más eficaz del procedimiento, ya que, la ordenanza anterior no se corresponde a la realidad siendo para ello necesaria su actualización y simplificación.

Hau egiterakoan, 4/2005 otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasuneko Legeak aipatutako printzipio orokorrak hartu dira kontuan: Tratu berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasunaren errespetua, genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa.

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea.

Ordenantza orokor honen xedea apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 106.2 artikulua aitortutako erregelamenduak egiteko ahalmena egikaritzea da, Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak arautuz, kasu honetan Ordenantza Fiskalen alderdi komunak, horiek behin eta berriz arautzea saihestuz.

### 2. artikulua. Lege araubidea.

Tributu kredituen eta tokiko zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreraren diru-bilketaren Kudeaketa honako hauen arabera arautuko da:

1. Azkoitiko Udalaren Kudeaketa eta Diru-bilketa Ordenantza hau.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua.

3. Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-bilketaren Erregelamendua, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua.

### 3. artikulua. Egutegi fiskala.

Egutegi fiskala indarraldiaren hasieran argitaratuko da, Udalaren iragarki oholean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta herriko prentsan.

### 4. artikulua. Kudeaketa-organoak.

Diru-bilketaren Kudeaketa organo hauei dagokie:

1. Alkatea.
  - a) Likidazioak onartu eta deuseztatuko ditu.
  - b) Errolda fiskalen, likidazioen eta borondatezko aldiko ordainagiriaren aurkako berraztertze errekurtsoak ebatziko ditu.
  - c) Bahitutako ondasunak besterentzeko baimena emango du.
  - d) Udalari ondasunak esleitzea ebatzen du.
  - e) Legez beste organo batzuei esleitu ez zaizkien eginkizun guztiak beteko ditu.
2. Errenta eta Diru-bilketako teknikaria.
  - a) Borondatezko epean eta epe exekutiboan egindako diru-bilketaren Kudeaketa zuzentzen du.
  - b) Premiamendu-probidentziak ematen ditu.
  - c) Bahitzeko eta bahitutako ondasunak saltzeko probidentziak ematen ditu.
  - d) Betearazpen-aldiko berraztertze errekurtsoak ebatziko ditu.
  - e) Ordaintzera behartutakoak eskatutako konpentsazioak ebatzen ditu.
  - f) Erakunde publikoen kredituak ofizios konpentsatzen ditu.
  - g) Prozedura exekutiboa eteteko eskaerak ebatzen ditu.
  - h) Kreditu kobraezinak aitortzen ditu.
  - i) Tributu-zorren eta tributuz kanpoko zorren erantzukizunaren deribazioak ematen ditu.

En su elaboración se han tenido en cuenta los principios generales mencionados en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres: igualdad de trato, igualdad de oportunidades, respeto a la diversidad y a la diferencia, integración de la perspectiva de género y Acción positiva.

## I. DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objeto.

El objeto de esta Ordenanza General es ejercer la potestad reglamentaria reconocida en el art. 106.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del régimen Local, regulando las materias que precisan concreción o desarrollo por parte del Ayuntamiento, además de regular aspectos comunes a diversas Ordenanzas Fiscales, evitando así la reiteración de los mismos.

### Artículo 2. Régimen Legal.

La gestión recaudatoria de los créditos tributarios y demás ingresos de derecho público locales se regirán por:

1. La presente Ordenanza de Gestión y Recaudación del Ayuntamiento de Azkoitia.

2. La Norma Foral General Tributaria, Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo.

3. La Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

4. El reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

### Artículo 3. Calendario fiscal.

El Calendario Fiscal se hará público en el comienzo de su vigencia, mediante su publicación en el Tablón de Edictos Municipal, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y en la prensa local.

### Artículo 4. Órganos de Gestión.

La gestión recaudatoria corresponde y se realiza por los siguientes órganos:

1. El Alcalde.
  - a) Aprueba y anula las liquidaciones.
  - b) Resuelve los recursos de reposición contra los padrones fiscales, liquidaciones y recibos en período voluntario.
  - c) Autoriza la enajenación de los bienes embargados.
  - d) Resuelve la adjudicación de bienes al Ayuntamiento.
  - e) El ejercicio de todas las funciones no atribuidas legalmente a otros órganos.
2. El Técnico de Rentas y Recaudación.
  - a) Dirige la gestión recaudatoria en pago voluntario y en período ejecutivo.
  - b) Dicta las providencias de apremio.
  - c) Dicta las providencias de embargo y las de venta de bienes embargados.
  - d) Resuelve los recursos de reposición en período ejecutivo.
  - e) Resuelve las compensaciones a instancia del obligado al pago.
  - f) Compensa de oficio los créditos de las Entidades Públicas.
  - g) Resuelve las solicitudes de suspensión del procedimiento ejecutivo.
  - h) Declara los créditos incobrables.
  - i) Dicta las derivaciones de responsabilidad de deudas tributarias y no tributarias.

#### 5. artikulua. Diru-bilketaren sistema.

Zuzenbide publikoko zerga eta diru-sarrerren bilketa honela egingo da:

1. Aldian aldiko ordainagiriak eta jakinarazpen kolektiboak:

a) Borondatezko epean, Udalak baimendutako erakunde laguntzaileen bidez, helbideratutako ordainagiriaren kasuan eta baita helbideratu gabeko ordainagirienean ere.

– Helbideratutako ordainagiria interesdunak emandako kontuan kargatuko da.

– Kobratze-aldiaren jakinarazpena modu kolektiboan egingo da, eta dagozkion ediktuek Probintziako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira. Hori da borondatez ordaintzeko aldi osoan egingo den jakinarazpen bakarra. Zerga errazago ordaintzeko asmoz, Udalak abixuak bidaliko ditu, jakinik abisu hauek ez dutela jakinarazpen izaerarik.

b) Epe exejutiboan, Udalak baimendutako erakunde laguntzaileetan.

2. Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen likidazioak:

Borondatezko aldiaren epe exejutiboan, Udalak baimendutako entitate laguntzaileen bitartez.

#### 6. artikulua. Banku-helbideratzea.

1. Helbideratzea ordainagiri guztietarako edo ordainagiri jakin baterako izan daiteke, azken kasu horretan horrela zehaztu ondoren. Zehazten ez bada, helbideratze orokorra dela ulertuko da, hau da, Udalak pertsona horren izenean egiten dituen ordainagiri guztientzako.

2. Helbideratzeko eta baja emateko eskabidea Azkoitiko Udalaren web orrian ([www.azkoitia.eus](http://www.azkoitia.eus)) ordainagiria helbideratzeko dagoen eredia betez egingo da.

3. Helbideratutako ordainagiriak, borondatez ordaintzeko epearen barruan kargatuko dira helbideratzeko kontuan.

4. Helbideratzeko eskaerak uneko ekitaldian izango ditu ondorioak, helbideratu nahi den diru-sarrera borondatez ordaintzeko epea hasi baino 30 egun lehenago egiten bada. Oro har, epe hori igaro ondoren, helbideratzeak hurrengo aldirako izango ditu ondorioak, Azkoitiko Udalak ez badu helbideratzeko aukera ematen kargatzeko fitxategia sortu bitartean.

5. Ordainketa-helbideratzeek ez dute epemugarik izango, salbu interesdunak ezeztatzen baditu, gordailu-erakundeak errefusatzeko baditu edo Azkoitiko Udalak arrazoi justifikatuenatik baliaezintasuna espresuki xedatzen badu.

6. Helbideratutako ordainagiriak badira, ez da zergadunaren etxera ordainketa-agiririk bidaliko. Likidazioaren datuak dakarren euskarri magnetikoan sartuko dira, kontuan kargatzean.

Udalak abisua eman ahalko du, kontuan kargatuko den eguna jakinaraziz.

7. Banku-helbideratzearen bidez egindako ordainketak helbideratze horien kontura egindako kargu-datan egindakotzat joko dira, baina Udalak ezin izango du ordainketaren frogagiririk edo zor ezaren ziurtagiririk luzatu helbideratze-fitxategiak itxi arte.

#### 7. artikulua. Helbidea.

Zergadunek helbide fiskala eta harremanetarako datuak (posta elektronikoa eta telefono mugikorra) jakinarazi beharko

#### Artículo 5. Sistema de Recaudación.

La recaudación de los tributos e ingresos de derecho público se realizará de la siguiente forma:

1. Recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva:

a) En periodo voluntario, a través de las Entidades Colaboradoras autorizadas por el Ayuntamiento, tanto el recibo domiciliado como el recibo no domiciliado.

– El recibo domiciliado será cargado en la cuenta facilitada por el interesado.

– La comunicación del período de cobro se efectuará de forma colectiva, publicándose los correspondientes edictos en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa siendo esta la única notificación que se realiza en todo el período de pago voluntario. Todo ello con independencia de que, a fin de facilitar el pago del impuesto, por parte del Ayuntamiento se remitan avisos que no tienen en ningún caso la consideración de notificaciones.

b) En período ejecutivo, en las Entidades Colaboradoras autorizadas por el Ayuntamiento.

2. Liquidaciones de los tributos y otros ingresos de derecho público:

Tanto en período voluntario como en período ejecutivo, a través de las Entidades Colaboradoras autorizadas por el Ayuntamiento.

#### Artículo 6. Domiciliación bancaria.

1. La domiciliación puede ser para todos los recibos o para un recibo en concreto, especificándose así en este último caso. Si no se especificase, se entenderá que la domiciliación es con carácter general, esto es, para todos los recibos emitidos por el Ayuntamiento a nombre de esa persona.

2. La solicitud de domiciliación y la baja se realizará mediante la cumplimentación del modelo que consta en la web del Ayuntamiento de Azkoitia ([www.azkoitia.eus](http://www.azkoitia.eus)) en la domiciliación del recibo.

3. Los recibos domiciliados serán cargados en la cuenta de domiciliación dentro del plazo de pago voluntario.

4. La solicitud de domiciliación surtirá efectos para el ejercicio en curso siempre que se haga con una antelación mínima de 30 días antes del comienzo del periodo de recaudación en voluntaria del ingreso que se pretende domiciliar. Con carácter general, pasado este plazo la domiciliación surtirá efectos para el período siguiente, salvo que el Ayuntamiento de Azkoitia habilite la posibilidad de domiciliar hasta el momento en que se genere el fichero de cargo en cuenta.

5. Las domiciliaciones de pago tendrán validez por tiempo indefinido, salvo que sean anuladas por el interesado siempre de forma expresa, rechazadas por la entidad de depósito o porque el Ayuntamiento de Azkoitia disponga expresamente su invalidez por razones justificadas.

6. En los supuestos de recibos domiciliados, no se remitirá al domicilio del contribuyente el documento de pago. Los datos de la liquidación se incorporarán en el soporte magnético que origine el correspondiente cargo en cuenta.

El Ayuntamiento podrá realizar un aviso, informando del día en que se efectuará el cargo en cuenta.

7. Los pagos efectuados mediante domiciliación bancaria se entenderán realizados en la fecha de cargo en cuenta de dichas domiciliaciones, pero el Ayuntamiento no podrá expedir justificante de pago o certificados de no deuda hasta que se cierren los correspondientes ficheros de domiciliación.

#### Artículo 7. Domicilio.

Los obligados tributarios deberán comunicar su domicilio fiscal y sus datos de contacto (correo electrónico y teléfono

dituzte. Halaber, gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko dute, eta ez du eraginik izango jakinarazpen hori egin arte.

Subjektu pasiboak deklaraturako helbide fiskala zergadun bakoitzari lotutako Kudeaketa elementu gisa sartuko da eta diru-bilketaren Kudeaketatik eratorritako jakinarazpen guztiak zein helbidetara igorriko diren adieraziko du.

## II. ORDAINKETA GERORATU EDO ZATIKATZEA

### 8. artikulua. *Ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera.*

1. Gerorapena edo zatikapena onartzeko irizpide orokorak hauek dira:

a) Ordainketa egin behar duenak diruzaintzan duen egotera dela eta, une horretan ordainketa egitea ekonomikoki ezinezkoa denean eskatuko du geroratzea edo zatikatzea. Tributu zor baten, zehapen baten edo zuzenbide publikoko beste edozein diru-sarreraren subjektu pasiboek eskatu ahalko dute ezarritako epean zor hori ordaindu ezin badute.

b) Geroratu edo zatikatu beharreko zorraren zenbatekoa ordaintzeko dagoen zor guztia izango da, eskatzaileak izan dezakeen aurreko zorra barne.

c) Ordainketaren zatikapena eskatzen denean, zatikatu beharreko zorra epe exekutiboan dagoenean, aplikatzen zaion errekar-gua % 20koa izango da, une horretan dagokion errekar-gua edozein dela ere.

Zehapenengatiko zorren gerorapena edo zatikapena eskatuz gero, haiek ordaintzeko dagoen edozein murrizketa galduko da; beraz, ordaindu beharreko zenbatekoa zehapenaren % 100ekoa izango da, dauden errekar-guei kalterik gabe.

d) Geroratzeko edo zatikatzeko gehieneko epea 24 hilabetekoa izango da.

e) Ez da 200 eurotik beherako zorrik geroratu edo zatikatu, salbuespen gisa ez bada, agirien bidez ordainketa egitea ezinezkoa dela frogatzen denean.

f) Ez da onartuko hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga atzeratzea edo zatikatzea, salbu agirien bidez frogatzen denean ordainketari ezin zaiola aurre egin, eta salmenta-prezioa higitzearen kargaren berdina edo txikiagoa izan dela egiaztatzen bada.

g) Geroratze edo zatikatzearen kasuan, likidazioak 60 euroko edo gehiagoko zenbatekoa izan behar dute.

h) Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen denean, zor osoaren % 10 ordaindu beharko da. Hau beteko ez balitz, ez dira zorraren gerorapenak edo zatiketak onartuko, beti ere, egoera bereziak salbu.

i) 3.000 eurotik gorako ordainketak geroratu edo zatikatu direnean, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 79. artikuluan ezarritakoaren arabera bermatu beharko dira.

j) 3.000 eurotik gorako ordainketa geroratu edo zatikatzen bada, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 26. artikulua aipatzen dituen berandutza-interesak ordaindu beharko dira.

2. Epeak eta zenbatekoa:

a) 200 eta 400 euro bitarteko zorren ordainketa hileko 3 epetan atzeratu edo zatikatu daiteke.

móvil). Igualmente deberán comunicar cualquier cambio o modificación producida, sin que produzca efecto hasta que no se formule dicha comunicación.

El domicilio fiscal declarado por el sujeto pasivo se incorporará como elemento de gestión asociado a cada contribuyente y constituirá la dirección a la que remitir todas las notificaciones derivadas de la gestión recaudatoria.

## II. APLAZAMIENTO O FRACCIONAMIENTO DE PAGO

*Artículo 8. Solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago.*

1. Los criterios generales de concesión de aplazamiento o fraccionamiento son:

a) El aplazamiento o fraccionamiento se solicitará por la imposibilidad económica de realizar el pago en el momento actual debido a la situación de tesorería del obligado al pago. Podrán solicitar los sujetos pasivos de una deuda tributaria, sanción o cualquier otro ingreso de derecho público, que no puedan hacer frente al pago del mismo dentro del plazo reglamentario.

b) El importe de la deuda a aplazar o fraccionar comprenderá toda la deuda pendiente de pago, incluida la deuda anterior que pudiera tener el solicitante.

c) Cuando se pida un fraccionamiento de pago, y la deuda a fraccionar esté en período ejecutivo, el recargo que se le aplique será del 20 % independientemente del recargo que le corresponda en ese momento.

En el caso de solicitar aplazamiento o fraccionamiento de las deudas por sanciones se pierde cualquier reducción existente para el pago de las mismas, por lo que el importe a pagar será el 100 % de la sanción, sin perjuicio de los recargos existentes.

d) El plazo máximo de aplazamiento o fraccionamiento será de 24 meses.

e) No se concederá aplazamiento o fraccionamiento de deudas cuyo importe sea inferior a 200 euros, salvo casos excepcionales en los que se justifique mediante documentos la imposibilidad de hacer frente al pago.

f) No se concederá aplazamiento o fraccionamiento del impuesto de incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana, salvo casos excepcionales en los que se justifique mediante documentos la imposibilidad de hacer frente al pago y se deberá acreditar que el precio de venta ha sido igual o inferior a la carga del inmueble.

g) Tanto en el caso de aplazamiento o fraccionamiento, la liquidación o liquidaciones resultantes deberán tener una cuantía igual o superior a 60 euros.

h) En el momento de solicitar el aplazamiento o fraccionamiento de pago, se deberá abonar el 10 % del importe total de la deuda pendiente. No se concederán por esta vía, salvo casos excepcionales, aplazamientos sin abono previo del 10 % de la deuda.

i) En los casos de aplazamiento o fraccionamiento de pago que excedan de la cuantía de 3.000 euros deberán garantizarse en los términos previstos en el artículo 79 de la Norma Foral 2/2005 General Tributaria.

j) En los casos de aplazamiento o fraccionamiento de pago que excedan de la cuantía de 3.000 euros, deberán abonar los intereses de demora a que se refiere el artículo 26 de la Norma Foral 2/2005 General tributaria.

2. Plazos y cuantía:

a) El pago de las deudas comprendido entre 200 y 400 euros puede ser aplazado o fraccionado hasta 3 plazos mensuales.

b) 400 eta 800 euro arteko zorren ordainketa hileko 6 epetan atzeratu edo zatikatu daiteke.

c) 800 euro baino gehiagoko eta 3.000 euro baino gutxiagoko zorren ordainketa atzeratu edo zatitu egin daiteke, hileko 12 epetara arte.

d) 3.000 eurotik gorako eta 12.000 eurotik beherako zorren ordainketa hileko 18 epetara atzeratu edo zatikatu daiteke, zatikatu/atzeratu beharreko zorraren % 20 gutxienez sartuz.

e) 12.000 eurotik gorako zorren ordainketa hileko 24 epetara atzeratu edo zatikatu daiteke, zatikatu/atzeratu beharreko zorraren % 20 gutxienez sartuz. Zenbatekoa 100.000 €-tik gorakoa bada, gutxieneko diru-sarrera 30.000 €-koa izango da.

### 3. Eskaeren edukia:

Gerorapen edo zatikapen eskaerak nahitaez ondoko datu eta agiri hauek izango ditu:

a) Eskatzailearen izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala.

b) Geroratu edo zatikatu nahi den zorraren identifikazioa.

c) Egoera ekonomiko-finantzarioak ezarritako epeetan ordainketa egitea galarazten dioten arrazoiak.

Behar ekonomikoaren egoera frogatzeko, agiri hauek aurkeztuko dira:

Eskabideari finantza eta berme egoera frogatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio. Agiri hauek bere egoera finantzarioa ziurtatzeko balioko dute. Erantsi beharreko agiriak, hurrengo ataletan zerrendatzen dira, beti ere, hauetako edozein aurkeztu daitekeelarik:

– Pertsona fisikoak:

c.1) Hilero edozein kontzepturengatik (soldatak, pentsioak, laguntzak, etab.) jasotzen diren diru-sarreraren frogagiriak, eskabidea aurkeztu aurreko hilabeteari dagozkionak.

c.2) Langabeziagatiko diru-laguntzen kasuan, prestazioaren zenbatekoaren ziurtagiria, laguntza emateko ebazpenaren kopia eta prestazioa onartzen den denbora egiaztatzen duen beste agiri bat.

c.3) Ordaintzera behartutakoa langabezian badago eta ez badu diru-laguntzarik ez laguntzarik jasotzen, langabeziaren justifikazioa eta horretarako organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, laguntza gisa inolako kopururik jasotzen ez duela dioena.

Halaber, eskatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri guztiak aurkeztu ahalko ditu.

c.4) Zailtasun ekonomikoko egoeran dagoenak gastu garrantzitsuak edo karga ekonomikoak alegatzen baditu, horiek justifikatzen dituzten agiriak.

c.5) Ordaintzera behartutakoaren errenta-aitorpenaren kopia, eskabidea egin aurreko zergaldiari dagokiona, edo aurreko ekitaldiari dagokiona, aurkezteko epea oraindik amaitu ez bada. Aitorpena aurkeztu ezean, Zerga Agentziak emandako ziurtagiria edo txostena aurkeztuko da, aitorpena aurkeztu ez dela frogatzeko.

Zergadunak agiri hau aurkezteko erabakiko balu, Azkoitiko Udalak egiaztatuko du datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik baldintza hau, beti ere zergadunak ez badu kontrakorik adierazten. Azken kasu honetan berak aurkeztu beharko luke.

b) El pago de las deudas de importe comprendido entre 400 y 800 euros puede ser aplazado o fraccionado hasta 6 plazos mensuales.

c) El pago de las deudas de importe superior a 800 e inferior a 3.000 euros puede ser aplazado o fraccionado hasta 12 plazos mensuales.

d) El pago de las deudas de importe superior a 3.000 e inferior a 12.000 euros puede ser aplazado o fraccionado hasta 18 plazos mensuales, con ingreso mínimo del % 20 de la deuda a fraccionar/aplazar.

e) El pago de las deudas de importe superior a 12.000 euros puede ser aplazado o fraccionado hasta 24 plazos mensuales, con ingreso mínimo del % 20 de la deuda a fraccionar/aplazar. En el caso que el importe excede de 100.000 €, el ingreso mínimo será de 30.000 €.

### 3. Contenido de las solicitudes.

La solicitud de aplazamiento o fraccionamiento contendrá necesariamente los siguientes datos y la siguiente documentación:

a) Nombre y apellidos o razón social completa, número de identificación fiscal y domicilio fiscal del solicitante.

b) Identificación de la deuda cuyo aplazamiento o fraccionamiento se solicita.

c) Causas que acrediten que su situación económico-financiera le impide, de forma transitoria, efectuar el pago en los plazos establecidos.

Para acreditar la situación de necesidad económica se aportará la siguiente documentación:

A la solicitud deberá añadirse cualquiera de los documentos que se enumeran de manera enunciativa en los párrafos siguientes, acreditativas de la situación financiera.

– Personas físicas:

c.1) Justificantes de los ingresos que se perciben mensualmente por cualquier concepto (sueldos, pensiones, ayudas, etc...) correspondientes al mes anterior a la presentación de la solicitud.

c.2) En caso de subsidios por desempleo, certificación del importe de la prestación y copia de la resolución de concesión de la misma y otro documento en el que quede acreditado el tiempo por el que se reconoce la prestación.

c.3) Si el obligado al pago se encuentra en situación de desempleo y no percibe subsidios ni ayudas, justificación de la situación de desempleo y certificación al efecto expedida por el órgano competente de no percepción de cantidad alguna en concepto de subsidio o ayuda.

Asimismo, podrán aportarse cuantos otros documentos sustenten la pretensión del solicitante.

c.4) Si como causa de la situación de dificultad económica se alegan gastos importantes o cargas económicas, documentos que justifiquen las mismas.

c.5) Copia de la declaración de la renta del obligado al pago correspondiente al periodo impositivo inmediatamente anterior al de la solicitud, o al del año precedente a éste último si aún no ha finalizado el plazo de presentación del correspondiente al ejercicio anterior. En caso de no presentación de la declaración se aportará certificación o informe expedido por la Agencia Tributaria acreditativo de la no presentación de la declaración.

Si el contribuyente optase por aportar este documento, el Ayuntamiento de Azkoitia verificará este requisito, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, a no ser que el contribuyente se niegue a ello siendo en este caso necesaria que lo presente el solicitante.

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

Gipuzkoako Foru Aldundia, foro ogasunak eta Estatuko Ogasuna:

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren kontsulta.

– Pertsona juridikoak:

c.6) Azken ekitaldiko sozietateen gaineko zerga.

c.7) Azken ekitaldiko emaitzen kontuen egoera-balantzea.

c.8) Ordezkaritza egiaztatzea.

d) Geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen diren epeak eta gainerako baldintzak.

e) Kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen abal solidarioan edo kauzio-aseguruaren kontratuan bermea eskaintzea, beharrezkoa balitz.

f) Banku-helbideratzearen agindua, kontu-zenbakia eta kontua dagoen kreditu-erakundearen identifikazio-datuak adierazita.

g) Tokia, eguna eta eskatzailearen sinadura.

4. Diru-bilketa Zerbitzuak zergadunaren identifikazio zuzena eta zorraren zenbatekoa egiaztatu ondoren, zatikapena onartzen zaiela ulertu ahal izango da, aurreko idatz-zatian aurreikusitako moduan, aldizkako transferentziaren agindua egiaztatzen duen banku-agiria aurkezten dutenei.

5. Geroratzea edo zatikatzea onartu arren, aurretik egin dako enbargoak gauzatu ahal izango dira edo etorkizunean sor daitezkeen bere aldeko kredituak dituzten zorrak konpentsatu.

6. Ordaindu behar duenaren egoera ekonomikoak, Udalak berak hala erabakita, salbuespen gisa, zorren gerorapena eman ahal izango da, arestian aipatutakoez besteko zenbateko eta epeetan.

7. Ordainketaren gerorapena edo zataikatzea onartzeak, eskatzaileak borondatezko ordainketaren epearen barruan sortzen diren zor berriak ordaintzeko konpromisoa hartzea dakar.

#### 9. artikulua. Ez ordaintzearen ondorioak.

– Gerorapenetan, gerorapena borondatezko epean eskatu bada, epe exekutiboa hasiko da eta geroratutako zorra dagoen epe exekutiboko errekariguarekin eskatuko da.

– Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, hasi den pre-miamendu-prozedura besterik gabe jarraituko da, eta, hala badagokio, dagoen bermea exekutatu ahal izango da lehenik.

– Zatikapenetan, borondatezko epean eskatu badira eta mugaegunean bi epe ez badira ordaintzen, ordaindu gabeko zatiki guztiak iraungitza joko dira. Epe exekutiboa hasiko da eta, beste izapiderik gabe, pre-miamendu-probidentzia emango da ordaindu gabeko zorreratik.

Zatikapenak epe exekutiboan eskatzen direnean, mugaegunean bi epe ordaintzen ez badira, pre-miamendu prozedura aplikatuko zaio zor osoari.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoetan aipatutako bi epe ez betetzea zatikapena emateko erabakia indarririk gabe uzteko, baldin eta epe horietako bat betetzen ez denean, Azkoitiko Udaleko Diru-bilketa Bulegoak ordainketa zatikatzeko espedientearen instrukzio-organo gisa errekerimendua egiten badu eta ordainketa 10 eguneko epean egiten ez bada.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

Diputación Foral de Gipuzkoa, Haciendas forales y Hacienda Estatal:

– Consulta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

– Personas jurídicas:

c.6) Impuesto de sociedades del último ejercicio.

c.7) Balance de situación de cuentas de resultado del último ejercicio.

c.8) Acreditación de la representación.

d) Plazos y demás condiciones del aplazamiento o fraccionamiento que se solicita.

e) Ofrecimiento de garantía en forma aval solidario de entidades de crédito o sociedad de garantía recíproca o contrato de seguro de caución, en caso de ser necesario.

f) Orden de domiciliación bancaria, indicando el número de cuenta y los datos identificativos de la entidad de crédito que haya de efectuar el cargo en cuenta.

g) Lugar, fecha y firma del solicitante.

4. Una vez comprobadas por el Servicio de Recaudación la correcta identificación del contribuyente y la cuantía de la deuda, podrá entenderse concedido el fraccionamiento a quienes presenten el documento bancario que acredite la orden de transferencia periódica en los términos previstos en el apartado anterior.

5. El aplazamiento o fraccionamiento se concede sin perjuicio de la ejecución de embargos realizados con anterioridad o compensación de deudas con créditos a su favor que puedan generarse en el futuro.

6. Cuando la situación económica del obligado al pago, discrecionalmente apreciada por el Ayuntamiento así lo aconseje, se podrá, con carácter excepcional, conceder aplazamiento de las deudas por importes y periodos distintos de los mencionados anteriormente.

7. La concesión de un aplazamiento o fraccionamiento de pago conlleva el compromiso por parte del solicitante de satisfacer las nuevas deudas que se devenguen dentro del periodo voluntario de pago.

#### Artículo 9. Efectos de la falta de pago.

– En los aplazamientos, si el aplazamiento fue solicitado en período voluntario, se iniciará el período ejecutivo y se exigirá la deuda aplazada con el recargo del período ejecutivo que le corresponda.

– Si el aplazamiento fue solicitado en período ejecutivo, se proseguirá sin más el procedimiento de apremio que se hubiese iniciado, pudiéndose ejecutar, en su caso, en primer lugar la garantía existente.

– En los fraccionamientos, cuando hayan sido solicitados en período voluntario, de no pagarse a su vencimiento dos plazos, se considerarán vencidas todas las fracciones pendientes, iniciándose el período ejecutivo y procediéndose, sin más trámites a dictar providencia de apremio por la deuda no pagada.

Quando los fraccionamientos hayan sido solicitados en período ejecutivo, de no pagarse a su vencimiento dos plazos, se procederá inmediatamente por la vía de apremio por la totalidad de la deuda pendiente.

No será necesario el incumplimiento de dos plazos a que se refieren los párrafos anteriores para dejar sin efecto el acuerdo de concesión del fraccionamiento cuando incumplido uno de ellos, exista requerimiento por parte de la Oficina de Recaudación del Ayuntamiento de Azkoitia como órgano instructor del expediente de fraccionamiento para su pago y éste no se efectúe en el plazo de 10 días.

#### 10. artikulua. Eskaerak ez onartzea.

Salbuespenezko inguruabarrak salbu, eskaera hauek ez dira onartuko:

a) Aldez aurretik ebatzitako gerorapen edo zatikapenak behar bezala oinarrituta ez badaude eta helburu bakarra zerga-betebeharrak betetzea atzeratzea bada.

b) Aldez aurretik ukatutako beste batzuk errepikatzea, baldin eta aldez aurretik ukatutako eskaeraren aldean funtsezko aldaketarik ez badute, eta, bereziki, errepikapen horren helburua zerga-bilketaren Kudeaketa luzatzea, zailtzea edo eragozteza bada.

c) Onartutako gerorapen edo zatikapenak behin eta berriz bete ez dituzten edo dagozkien bermeak formalizatu ez dituzten obligaziodunek aurkeztutakoak.

d) Konpentsatu daitezkeen zatikatzeko edo geroratzeko zorrak.

e) Ordenantza honetako 8. artikuluko lehenengo puntuko e), f) eta h) atalekoak.

Ez onartzeak berarekin ekarriko du gerorapen edo zatikapen eskaera ez aurkeztutzat hartzea ondorio guztietarako.

#### 11. artikulua. Egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa.

1. Udal diruzainak zordunaren zailtasun ekonomiko-finanzarioen aldi baterako izaera ebaluatuko du, hau da, baliabide likido nahikorik ez izatea edo gutxi izatea, egoeraren arabera eta ez egituraren arabera, berehalako betebeharrak deuseztatzea eragozten duena.

Ahaleginak egingo dira zordunak zorrak sistematikoki atzeratzea edo zatitzea lor ez dezan, batez ere aldizkako zergei dagokionez, eta unean uneko arazo ekonomiko-finanzarioak ez dagoenean.

2. Zordunaren zailtasun ekonomiko-finanzarioak azterzen direnean, kontuan hartuko dira egiturazko zailtasunak, jardueraren bideragarritasunik eza, aurreikuspena edo ordaintzeko erraztasun hori behar ez bezala erabiltzea ekar dezaketen inguruabarrak. Zehazki, honako hauek aztertuko dira:

a) Azkoitiko Udalarekin Indarrean dauden zerga-betebeharrak betetzea, lehendik onartutako beste gerorapen edo zatikapen batzuk barne.

b) Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera errepikatzea.

c) Lehenago onartutako beste gerorapen edo zatikapen batzuk ez betetzeagatik deuseztatzea.

d) Zorraren zenbatekoaren garrantzi erlatiboa, zordunaren inguruabar pertsonalak kontuan hartuta.

#### 12. artikulua. Ebazpena.

1. Ebazpena alkateari dagokio, eta hark eskuordetu ahal izango du esleipen hori, eskatutako kontzeptuen, zenbatekoen eta atzerapen-epeneen arabera.

Hala ere, 6.000 €-tik beherako zorrak atzeratzeko/zatikatzeko eskaerak Udalaren errenta- eta diru-bilketako teknikariari ebatziko ditu. Era berean, errenta- eta diru-bilketako teknikariari dagokio emandako gerorapen/zatikapenen baldintzak betetzeko beharrezkoak diren administrazio-egintzak ematea.

2. Geroratzeko/zatikatzeko eskaerak hilabeteko epean ebatziko dira, gehienez, aurkezten direnetik edo akatsak zuzentzen diren egunetik. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, ezetsizat joko da.

#### Artículo 10. Inadmisión de solicitudes.

Salvo circunstancias excepcionales, serán inadmitidas las siguientes solicitudes:

a) Las de reconsideración de aplazamientos o fraccionamientos previamente resueltos y que no están debidamente fundadas teniendo como única finalidad demorar el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

b) Las que sean reiterativas de otras anteriores que hayan sido objeto de denegación previa, siempre que no contengan modificación sustancial respecto de la solicitud previamente denegada y, en particular, cuando dicha reiteración tenga por finalidad dilatar, dificultar o impedir el desarrollo de la gestión recaudatoria.

c) Las presentadas por los obligados que hayan incumplido reiteradamente aplazamientos o fraccionamientos concedidos o no hayan formalizado las garantías correspondientes.

d) Las de fraccionamiento o aplazamientos de deudas que sean objeto de compensación.

e) Las correspondientes al apartado e), f) y h) del primer punto del artículo 8 de esta ordenanza.

La inadmisión implicará que la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento se tenga por no presentada a todos los efectos.

#### Artículo 11. Análisis de la situación económico-financiera.

1. La Tesorera municipal evaluará el carácter transitorio de las dificultades económico-financieras del deudor, entendiéndose como tales la ausencia o escasez de recursos líquidos suficientes, con carácter coyuntural y no estructural, que no permita la cancelación de sus obligaciones inmediatas.

Se procurará evitar que a través de reiteradas y sucesivas solicitudes, especialmente de tributos periódicos, el deudor consiga un aplazamiento o fraccionamiento sistemático de sus deudas no teniendo realmente problemas económico-financieros de carácter coyuntural.

2. Cuando se estudien las dificultades económico-financieras del deudor se tendrán en cuenta aquellas circunstancias que puedan ser reflejo de dificultades estructurales, de falta de viabilidad de la actividad, previsión o bien de utilización indebida de esta facilidad de pago. En concreto se examinará:

a) El cumplimiento corriente de obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Azkoitia, incluidos el de otros aplazamiento o fraccionamiento vigentes concedidos con anterioridad.

b) La reiteración en la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento.

c) La cancelación por incumplimiento de otros aplazamientos o fraccionamientos concedidos con anterioridad.

d) La importancia relativa del importe de la deuda, atendiendo a las circunstancias personales del deudor.

#### Artículo 12. Resolución.

1. La resolución corresponde al Alcalde, quien podrá delegar esta atribución según conceptos, cuantías y plazos de aplazamiento solicitados.

No obstante, las solicitudes de aplazamiento/fraccionamiento que se refieran a deudas cuyo importe no exceda de 6.000 € serán resueltas por la Técnico de rentas y recaudación municipal. Asimismo, compete a la Técnico de rentas y recaudación el dictado de los actos administrativos necesarios para el cumplimiento de las condiciones de los aplazamientos/fraccionamientos concedidos.

2. Las solicitudes de aplazamiento/fraccionamiento se resolverán en un plazo máximo de un mes desde la fecha de su presentación, o desde la fecha de subsanación de deficiencias. Si no se produce resolución en este plazo, debe considerarse desestimada.

3. Zatiketa edo gerorapena onartua duten ebazpenetan, honako hauek jasoko dira:

- a) Zatikatzeko edo geroratzen diren zorraren edo zorren zehaztapena eta zenbatekoa.
- b) Berandutze-interesaren likidazioaren zenbatekoa.
- c) Guztizko kopuru geroratua edo zatikatua (nagusia gehi interesak).
- d) Emandako epe bakoitzaren zenbatekoa eta mugaeguna.

Ebazpen horien aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke, hilabeteko epean, ebazpen hau eman zuen organoari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hasita. Organo horrek du ebazpena emateko eskumena.

### III. KREDITU KOBRAEZINAK

*13. artikulua. Kreditu kobraezinak deklaratzeko proposamenak.*

1. Prozedura-legezketasun printzipioa eta administrazioaren ekonomia eta eraginkortasun printzipioak bateratzeko asmoz, kreditu kobraezinak deklaratzeko proposamena egin aurretik egiaztatu beharko diren baldintza eta betekizunak ezarzen dira.

2. Frogagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbateko eta ezaugarrien arabera, kasu hauek bereiziz:

a) 300,00 eurorainoko zorra duten espedienteak:

– Jakinarazpena Udalaren datu-basean agertzen den helbide fiskalean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean. Jakinarazpenaren emaitza negatiboa bada, iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da.

– Finantza-erakundeetan funtsak bahitzeko ahalegina, emaitza negatiboarekin.

b) 300,01 eurotik 3.000,00 eurora bitarteko zorra duen espedienteak:

– Jakinarazpena Udalaren datu-basean agertzen den helbide fiskalean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean. Jakinarazpenaren emaitza negatiboa bada, iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da.

– Finantza-erakundeetan funtsak bahitzeko ahalegina, emaitza negatiboarekin.

– Soldatak, lansariak eta pentsioak bahitzeko ahalegina, emaitza negatiboarekin.

– Gipuzkoako Foru Aldundira bidalitako ordainagiriak itzultzea, kobrantza negatiboarekin.

– Zorduna ibilgailuaren jabea ez dela egiaztatzea, edo, jabea izanez gero, 12 urtetik gorako antzinatasuna duela egiaztatzea.

c) 3.000,01 eurotik 10.000,00 eurora bitarteko zorra duen espedienteak:

– Jakinarazpena Udalaren datu-basean agertzen den helbide fiskalean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean. Jakinarazpenaren emaitza negatiboa bada, iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da.

– Finantza-erakundeetan funtsak bahitzeko ahalegina, emaitza negatiboarekin.

– Soldatak, lansariak eta pentsioak bahitzeko ahalegina, emaitza negatiboarekin.

– Gipuzkoako Foru Aldundira bidalitako ordainagiriak itzultzea, kobrantza negatiboarekin.

3. En las resoluciones por las que se otorgue fraccionamiento o aplazamiento se hará constar:

- a) Especificación e importe de la deuda o deudas que se fraccionan o aplazan.
- b) Importe de la liquidación por intereses de demora.
- c) Cantidad total aplazada o fraccionada (principal más intereses).
- d) Importe y fecha de vencimiento de cada uno de los plazos concedidos.

Contra estas resoluciones, se podrá interponerse recurso de reposición, con carácter potestativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de su notificación ante el mismo órgano que dictó la resolución que será el competente para resolverlo.

### III. CRÉDITOS INCOBRABLES

*Artículo 13. Propuestas de declaración de créditos incobrables.*

1. Con la finalidad de conjugar el respeto al principio de legalidad procedimental con el de economía y eficacia administrativa, se establecen los requisitos y condiciones que habrán de verificarse con carácter previo a la propuesta de declaración de créditos incobrables.

2. La documentación justificativa será diferente en función de los importes y características de la deuda, distinguiéndose los siguientes supuestos:

a) Expedientes con importe de deuda hasta 300,00 €:

– Notificación en el domicilio fiscal que figure en la base de datos municipal, así como en el domicilio que conste en el Padrón de Habitantes. Si el resultado de la notificación fuese negativo, publicación mediante anuncio en el *Boletín Oficial del Estado*.

– Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.

b) Expediente por un importe de deuda de 300,01 € a 3.000,00 €:

– Notificación en el domicilio fiscal que figure en la base de datos municipal, así como en el domicilio que conste en el Padrón de Habitantes. Si el resultado de la notificación fuese negativo, publicación mediante anuncio en el *Boletín Oficial del Estado*.

– Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.

– Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.

– Devolución de recibos enviados a Diputación Foral de Gipuzkoa con resultado de cobro negativo.

– Acreditar que el deudor no es propietario de vehículo, o en caso de que lo sea, este vehículo tenga una antigüedad superior a los 12 años.

c) Expediente por un importe de deuda de 3.000,01 € a 10.000,00 €:

– Notificación en el domicilio fiscal que figure en la base de datos municipal, así como en el domicilio que conste en el Padrón de Habitantes. Si el resultado de la notificación fuese negativo, publicación mediante anuncio en el *Boletín Oficial del Estado*.

– Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.

– Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.

– Devolución de recibos enviados a Diputación Foral de Gipuzkoa con resultado de cobro negativo.



— Zordunaren izenean, Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan inskribatutako ondasunik ez dagoela egiaztatzea.

*14. artikulua. Kobraezinak berrikustea eta kreditu kobraezinak birgaitzea.*

1. Zerga-bilketa zerbitzuak ikuskatuko du kobraezintzat jotako erantzuleek gerora izan dezaketen kaudimena.

2. Egoera hori gertatuz gero, eta preskripziorik ez badago, kobraezintzat jotako kredituak birgaitzea bidezkoa izango da, prozedura exekutiboa berriz irekiko da eta baja emandako kredituen beste likidazio bat egingo da, kobrantza-egoera berean dauden titulu betearazleak eman daitezen kobratze-egoera berean.

### III. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honen bitartez, indargabe geratzen da 2015eko urtarrilaren 19an onartutako eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2015eko urtarrilaren 26an 15. zenbakiarekin argitaratutako ordenantza orokorra, zergen eta toki zuzenbide publikoko beste dirusarrera batzuen Kudeaketa eta bilketa arautzen duena.

### IV. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek beronen behin betiko onartutako testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 egunera hartuko du indarra, eta indarrean jarraituko du harik eta Udalak osoko bilkuran onartu beharko duen aldaketa edo berariazko indargabetzea egin arte.

Azkoitia, 2021eko azaroaren 22a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (7564)

— Acreditar que no existe bienes inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro Registro público.

*Artículo 14. Revisión de fallidos y rehabilitación de créditos incobrables.*

1. El servicio de recaudación vigilará la posible solvencia sobrevenida a los obligados responsables declarados fallidos.

2. En caso de sobrevenir esta circunstancia, y de no mediar prescripción, procederá la rehabilitación de los créditos incobrables se reabrirá el procedimiento ejecutivo y se practicará nueva liquidación de los créditos dados de baja, a fin de que sean expedidos los correspondientes títulos ejecutivos en la misma situación de cobro en que se encontraban en el momento de la declaración de fallido.

### III. DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Por la presente queda derogada la ordenanza general de gestión y recaudación de los tributos y otros ingresos de derecho público locales, aprobada el 19 de enero de 2015 por el pleno municipal y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 15 de fecha 26 de enero de 2015.

### IV. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de la publicación del texto aprobado definitivamente en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.

Azkoitia, a 22 de noviembre de 2021.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (7564)